

LIBURUAREN EGUNA 2017 ORMAIZTEGIN

LETREN I. TRUKE AZOKA

Lehiaketara aurkeztutako lanen zerrenda



HORIA: 6-11 urte modalitatea

URDINA: 12-17 urte modalitatea

KOLORERIK GABE: 30 urte + modalitatea

1 (olerkia)

ORMAIZTEGI

ZENBAT HITZETAN

ZUTAZ MINTZA

ORMA, IZOTZA,

URA, BIZIA

BURNIA, ZUBIA

MENDIA, KALEA

BIDEA, GORRIA, BERDEA

DOINUA, ABESTIA

TXIKIA , DOTOREA

GOXOA, GUREA

SORTZAILE, BERRITZAILE

EKINTZAILE MAIZTEGI

HORRELAKOA ZAITUGU

ORMAIZTEGI

2 (esaera zaharra)

LETRA GABEKO AISIA, PERTSONA BIZIAREN HOBIA.

3 (abestia)

ITSASGALDUA (NÁUFRAGO)

AGIAN AHAZTEZINA DEN ISTORIO BAT DA

BETI AMAIERA ILUN BAT DUENA, APURYU EDO ERDITIK AUSTEN DIREN AMETSAK

LEHOR DAUDEN EZPAINAK MUXUKATZEKO URDURIK JARRAITZEN DUTENAK

ZU ITSAROTEN JARRAITUKO DUT, URTE BAT, MENDE BAT EDO BETIKORTASUNEAN

SUA PIZTUTA MANTENDUKO DUT BERRIZ ETORTZEA PENTSATZEN BADEZU
ZUREKIN HONDORATUKO NAHIZ ETA BATERA MANTENDUKO DUGU GURE BEROA, ETA
ELKARREKIN IBILBIDE BAT ARTUKO DUGU HELMUGARIK GABE, BIDEAN ERROMANTZEA
ETA ILUNABARREAN HAIZEAK GOGORATUKO DU...

BORROKATUKO DUT ZURETAZ EZ JAKITEAK EMATEN DIDAN BELDURRA GALDU ARTE
ETA ZORO BORROKA HAU EZ DU BERE PORROTA EGOKITZEN HAU ESATEA LORTU ARTE,
HEMEN ITXARONGO DIZUDALA **URTE BAT, MENDE BAT EDO BETIKOTASUNA**

4 (olerkia)

NI SATORRA BANINTZ, ZULO BAT EGINGO NUKE.,
ZULO BAT EGINGO BANU, ZIZAREAK AGERTUKO LIRATEKE.
ZIZAREAK AGERTUKO BALIRA, JAN EGINGO NITUZKE.
HORIEK JANGO BANITU, LOGURA ETORRIKO LITZAIDAKE.
LO EGINGO BANU, AMETS GOXOAK EDUKIKO NITUZKE.

5 (bertsoa)

BASERRI HUTS BATI
O, BASERRITXO, ARTUKO DEZU BIOZ BARRENETIKAN MIN,
ESKERRAK MIRIK EZ DEZU ETA EZIN DEZU GAUR ITZEGIN,
ZENBAT FAMILI AZIA DEZUN JAINKUAK BAKARRIK JAKIN,
ORAIN ZOKOAN UZTEN ZAITUZTE ONDOTIK DENEN ALDEGIN.
ZEURE SEMIAK ESTALTZEN ARTU DEZU AMAIKA ENDRERO,
ZURE BABESESZ GORDETZEN ZIRAN EGUNERO TA GAUERO,
AINBAT FABORE EGN DEZU TA TA ESKERTXAR ORI GERO,
O, BASERRIA, GAIZKI ZAUDE GAUR ONDO PENTSATU EZKERO.
ZUK EMAN DEZU AINBAT AURTXOREN BABESA ETA EPELA,
IKUSTEN ZAITUT GAUR EGUNEAN ESKERRIK GABE ZAUDELA;
BERTSOLARIA MINBERTZEN DA ZU IKUSTIAN HORRELA;
GAUR BASERRI HAU NABARI DET EUSKERA BEZELA

6 (esaera zaharra)

EGIAK ETA URAK, BETI BEREN BIDEA EGITEN

7 (esaera zaharra)

GUK EUSKARAZ, ZUK ZERGATIK EZ ?

8 (olerkia)

ARGIA DATORKIT
HAUR BATEN BEGI GARBIAK ANTZEMATEAN
ZU IKUSTEAN BIHOTZA GOXOKI,
AZTORATZEN Z AidANEAN
BIZITZA NAIZELA OHARTZEAN
ARGIA DATORKIT
OSOTASUNAREN PARTE NAIZELA SENTITZEAN
TXORIEN KANTUAK ENTZUTEAN
IZARRAK BEGIRATZEAN
BIZITZA NAIZELA OHARTZEAN

9 (esaera zaharra)

MAIATZEAN KUKUAK, KUKU

DIRUZ BANITU BI ZAKU

10 (esaera zaharra)
EDER EDO ITSUSI
ZEIN BEGIK IKUSI

11 (esaera zaharra)
ZAPOA KLIN KLON,
BIHAR EGURALDI ON!!

12 (esaera zaharra)
LANIK ZAILENA ERE, SAIATUZ GERO BUKATZEN DA

13 (esaera zaharra)
ZAHARRAK BADU ZER ESAN, ETA GAZTEAK ZER IKASI

14 (esaera zaharra)
URTE ASKOTAN NAHI BADEZU BIZI, OILOEKIN OHERA ETA TXORIEKIN JEIKI

15 (olerkia)
- JOLASTUKO GARA EZKUTAKETAN?
- BAI, BAINA AURKITZEN BAZAITUT
MUXUKA JANGO ZAITUT
- ADOS. AURKITZEN EZ BANAUZU
OHEAREN AZPIAN EGONGO NAIZ

16 (esaera zaharra)
IXILIK DAGOENAK, EZ DIO GEZURRIK
17 (olerkia)
ETZAN HARIZPEAN ERREKA BAZTERREAN
IKUSI UR KORRONTEA NOLA BARETZEN DEN
ENTZUN TXORIAK KANTARI
USAINDU HORITZEN ARI DIREN KIMUAK
ARNASTU LARRAZKENEKO HAIZEAREN FRESKOA
ETA ULERTUKO DUZU ZEIN GUTTIREKIN IZAN ZAITEZKEEN ZORIONTSU

18 (olerkia)
EMOZIOA!!
ADARBAKAR TXIKI ALAI BAT TROSTOIKO ZETORREN MUTIKOARENGANA
NIRE BILA ZABILTZA? – GALDETU ZION.
– BAI: LURREKO MENDIRIK EDERRERAINO IGO NAIZ / LEIZERIK SAKONENETAN JAITSI, ETA
BASO MAGIKOETAN BARNERATU ZEN AURKITZEKO ITXAROPENEZ. ETA ORAIN LORTU
DUDALARIK, POZARREN NAUKAZU ZU IKUSTEAGATIK

19 (olerkia)
ITSASO HAIZEA, NON DA?
NON DA, NON DA ZURE BEGIEN TAUPADA? HOTZ DAGO, AHOTS IXILEN BALADA MAITASUN
IZOZTUEN BIDEAN GALDUTA.
NON DA, NON DA ZURE ILARGI BETEA? LO DAGO GAU MUTUEN IZERDIA MAITASUN
ZIRRAREN ERDIAN GELDOA.

NON DA? ITSASO HAIZEA NON DA? ZIN EGIN ZENIDAN, ZIN EGIN NIZUN, ETA ITOTA NABIL
ORDUTIK.

NON DA? ZURE BEGIEN KATEA, EZ DUT BESTERIK IKUSTEN

20 (igarkizuna)

ZER DELA ETA ZER DELA...
SUA BEHAR DU FUNTZIONATZEKO
ETA HEGAN EGITEN DU

21 (bertsoa)

BERTSO BAT IDATZIKO DET
NORBAITEK IRAKUR DEZAN
LIBURUAK JARTZEN DITU
EMOZIOAK BALANTZAN;
POESIA, NARRAZIO
NAIZ MISTERIOA IZAN
ESKOLAN, ETXEA ERE,
EDOZEIN HERRIKO PLAZAN
IRAKURTZEAREN PLAZERRA
HOBERIKAN BADA ESAN
TA LETREN ERREPUBLIKAN
HIZKI TA IKURRAK DANTZAN.
EKIN IRAKURTZEARI,
EZ IZAN INOR ZALANTZAN
HALA BAZAN O EZ BAZAN
SAR DADIDALA KALABAZAN
(habanera)

22 (bertsoa)

TRANSMISIOA
TXIKI-TXIKITAN GURE AMAK
KONTATZEN ZIGUN IPUINA
URTETAN ZEHAR GOGORATU DUT
EGINDAKO LAN BIKAINA
NERE IRAKURZALETASUNA
HORTIKAN DATOR JAKINA
TA ORAIN AMA NAIZEN ALDETIK
EGIN NAHI DUT AHALEGIÑA
SEMEARI PIZTEN GRINA

23(olerkia)

IREKI LIBURUA.
IREKI ATEAK IRUDIMENARI
ZABALDU HEGOAK ETA EGIN HEGAN
MUGA GUZTIEN GAINETIK
MUNDU BERRI BATERANTZ.
ITXI LIBURUA.
MUNDU BERRIAK HOR DIRAU.
IRUDIMENEAN.
BETIKO.

24(igarkizuna)

NIK ESAN ETA ZUK ENTZUN, PENTSATU ETA ERANTZUN.
BI BELARRI LUZE, KORRIKA SALTO ASKO EGITEN DU.
TXIMISTA BAINO AZKARRAGOA DA.

25 (igarkizuna)

SUGEA BANAIZ, SUGEA EZ NAIZ,
SUGEA DUT IZENEAN.
LABEKO HAIZE BEROA BAINO
ERREAGOA DA NIRE HATSA,
HASERRETZEN NAIZENEAN.

26 (igarkizuna)

ZER DELA ETA ZER DELA...
SOKA LUZE BAT LAZOEKIN,
KOLORETSUA IZATEN DA ASKOTAN,
TXINAN ASMATUTAKOA DA
ETA AIREAN IBILTZEN DA
HAIZE HANDIA DABILENEAN

27 (abestia)

MENDIAN LARRARTEAN AURKITZEN DA LORETXO BAT
ONDOAN UMETXO BAT LORETXOARI BEGIRA
LORETXOAK ESAN DIO UMETXO ASKA NAZAZU
JAIO NAIZ LIBRE IZATEKO ETA EZ LOTURIK EGOTEKO.
UMETXOAK IKUSIRIK LOREA EZIN BIZIRIK
ARANTZAK KENDU NAHI DIZKIO BIZI BERRI BAT EMAN
HONELA EMANGO BAITU INDARRA ETA KEMENA
HONELA EMANGO BAITU UGARI BERE FRUITUA

28

DENBORAK DARAMA GUREA USTE DUGUN BIZIA
KOLOREZ MARGOTU NAHI DUGU TA EMAN ARGIA
MAITASUNA DA ESKURA BETI DAUKAGUN PIPER ETA EZTIA.